

# EUSKAL HERRIA

## 56 IBILBIDE

### XENDAZALEENTZAT

Desnibel gutxikoak eta ez oso luzeak

MIHEL ARRIZABALAGA

## AURKIBIDEA

|                                                |     |                                                    |     |
|------------------------------------------------|-----|----------------------------------------------------|-----|
| <b>SARRERA</b> .....                           | 8   | <b>28</b> Erdoiztako ermita.....                   | 112 |
|                                                |     | <b>29</b> Labetxuko koloreak.....                  | 115 |
|                                                |     | <b>30</b> Beloagako gaztelua.....                  | 118 |
| <b>ARABA</b>                                   |     | <b>IPAR EUSKAL HERRIA</b>                          |     |
| <b>1</b> Guardiako aintzirak.....              | 20  | <b>31</b> Abadiako lurak.....                      | 124 |
| <b>2</b> Matxinbrao bidea.....                 | 23  | <b>32</b> Etxepetako bartak.....                   | 128 |
| <b>3</b> Markizko kobak.....                   | 26  | <b>33</b> Ezpeletako bazterrak.....                | 131 |
| <b>4</b> Uraren bidea.....                     | 29  | <b>34</b> Miarritzeko lakuak.....                  | 135 |
| <b>5</b> Puron ibaiaren haitzartea.....        | 32  | <b>35</b> Haranbeltzeko kapera.....                | 139 |
| <b>6</b> Surbe, Baio eta Mirutegi.....         | 35  | <b>36</b> Aldude ibarra.....                       | 142 |
| <b>7</b> Antoñanako begiratokia.....           | 38  | <b>37</b> Hilarrietako jentil-baratzeak.....       | 146 |
| <b>8</b> Garaioko urtegiaren itzulia.....      | 41  | <b>38</b> Arberoako muinoak.....                   | 148 |
| <b>9</b> Nerbioiko ur-jauzia.....              | 46  | <b>39</b> Agaramontarren lurraldea.....            | 151 |
| <b>10</b> Las Gobas eta Santorkaria.....       | 49  | <b>40</b> Mitikile eta Larrori.....                | 155 |
|                                                |     | <b>41</b> Ahüzkiko üthüria.....                    | 158 |
|                                                |     | <b>42</b> Olhadübiko zintzurra.....                | 161 |
| <b>BIZKAIA</b>                                 |     | <b>NAFARROA</b>                                    |     |
| <b>11</b> Atxarreko begiratokia.....           | 54  | <b>43</b> Ollarango itzulia.....                   | 166 |
| <b>12</b> Baselizen ibilbidea.....             | 57  | <b>44</b> Elizagorriako lurretan.....              | 169 |
| <b>13</b> Baltzolako parajeak.....             | 60  | <b>45</b> Lazkuako begiratokia.....                | 172 |
| <b>14</b> Otzarretatik Ugunako ur-jauzira..... | 63  | <b>46</b> Portupekoleze eta Lezaundi.....          | 175 |
| <b>15</b> Larreineta eta Zugaztieta.....       | 66  | <b>47</b> Pitillasko aintzira.....                 | 178 |
| <b>16</b> Argiñetako nekropolia.....           | 70  | <b>48</b> Orbaibarko ermitak.....                  | 182 |
| <b>17</b> Bolunburuko kastrea.....             | 73  | <b>49</b> Artikutzako basoak.....                  | 185 |
| <b>18</b> Laukiztik Butroera.....              | 76  | <b>50</b> Garesko gotorlekuak.....                 | 189 |
| <b>19</b> Letanien bidezidorra.....            | 79  | <b>51</b> Bardea Zuria.....                        | 193 |
| <b>20</b> Itxinako erraieran.....              | 83  | <b>52</b> Irunberriko arroila.....                 | 197 |
|                                                |     | <b>53</b> Larraungo lurretan.....                  | 200 |
| <b>GIPUZKOA</b>                                |     | <b>54</b> Amairuko gaztelua.....                   | 205 |
| <b>21</b> Berastegiko harana.....              | 88  | <b>55</b> Euskal Herriko erdigune geografikoa..... | 209 |
| <b>22</b> Mendata eta Sakoneta.....            | 91  | <b>56</b> Infernuko errota.....                    | 213 |
| <b>23</b> Urbia eta Oltzako larreak.....       | 94  |                                                    |     |
| <b>24</b> Kalamuako lubakiak.....              | 98  |                                                    |     |
| <b>25</b> Aitzulo.....                         | 101 |                                                    |     |
| <b>26</b> Malla Harria.....                    | 106 |                                                    |     |
| <b>27</b> Ataungo auzoak.....                  | 109 |                                                    |     |

# A R A B A

- |          |                                                                    |           |                                                                   |
|----------|--------------------------------------------------------------------|-----------|-------------------------------------------------------------------|
| <b>1</b> | <b>GUARDIAKO AINTZIRAK</b><br>(2 h 15 min / 9 km / 64 m)           | <b>6</b>  | <b>SURBE, BAIO ETA MIRUTEGI</b><br>(3 h 20 min / 9,5 km / 625 m)  |
| <b>2</b> | <b>MATXINBRAO BIDEA</b><br>(1 h 50 min / 5,8 km / 174 m)           | <b>7</b>  | <b>ANTOÑANAKO BEGIRATOKIA</b><br>(1 h 50 min / 5,8 km / 193 m)    |
| <b>3</b> | <b>MARKIZKO KOBAK</b><br>(1 h 30 min / 4,8 km / 154 m)             | <b>8</b>  | <b>GARAIKO URTEGIAREN ITZULIA</b><br>(3 h 10 min / 14 km / 64 m)  |
| <b>4</b> | <b>URAREN BIDEA</b><br>(2 h 50 min / 10 km / 168 m)                | <b>9</b>  | <b>NERBIOIKO UR-JAUZIA</b><br>(2 h / 7,2 km / 127 m)              |
| <b>5</b> | <b>PURON IBAIAREN HAITZARTEA</b><br>(3 h 30 min / 12,7 km / 346 m) | <b>10</b> | <b>LAS GOBAS ETA SANTORKARIA</b><br>(2 h 10 min / 7,3 km / 208 m) |



**TXANGO HAU EK  
HERRIALDEKO  
HAITZARTEAK,  
UR-JAUZIAK,  
AINTZIRAK,  
PAGADIAK ETA  
GAILURRAK  
DITUZTE  
HELMUGA.**



SANTORKARIAKO LEIZEAK.

## GUARDIAKO AINTZIRAK

### Arabako Errioxako bihotzean

01

IRAUPENA:  
2 h 15 minLUZERA:  
9 kmZAILTASUNA:  
ERRAZADESNIBELA:  
64 m

Guardiako aintzirak Arabako Errioxaren bihotzean dagoen biotopo babestua da. Harresiz inguratutako Guardia herritik oso gertu dauden aintzira hauek ibilaldi zirkular erraz bat eginez ezagutuko ditugu. Zereal-lur eta mahasti artean marrazten diren paraje eder hauek iparraldetik Toloño mendilerroaren harresi natural bikaina dute muga.



Arabako lau aintzira hauetako hiru (Carravalseca, Carralogroño eta Musco) aldi baterako urmaelak dira, jatorri naturala baitute; laugarrena, berriz, Prao de la Paül izenekoa, urtegi txiki bat da. Horregatik, lehen hiruetan, joaten garen garaia arabera, irudia desberdina izan daiteke. Esaterako, uda garaian uraren orde zatzaren zarakarrak zuritutako sakonune lehor eta lauak ikusiko ditugu; urtaro hezeetan, aldiz, urez beteta agertuko zaizkigu. Leku hauetan biltzen diren urek irteerarik ez dutenez, euri-garaian metatutako ura aro beroetan lurrindu eta bertan disolbatutako gatza geratzen da lurraren azalean.

Guardia herritik erraz iritsiko gara aintziren ondora, eta, horretarako, abiapuntua ere desberdina izan daiteke. Villa Lucia jatetxearen ondotik, adibidez, Logroñorantz zuzentzen den errepidearen barna abiatu eta berehala, hau utzi eta



PRAO DE LA PAUL AINTZIRA BEHATOKITIK.

eskuin aldetik ateratzen den pista hartuko dugu hegoalderantz. Mahastien artean marrazten diren hainbat landa-bide erabiliko dugu aintzira guztiak ezagutu ahal izateko.

Bidearen lehen zati honetan, Inaziotar Bidearen marka zurigorriak izango ditugu lagun, hau da, Azpeitia (Gipuzkoa) eta Manresa (Bartzelona) elkarlotzen dituen ibilbideari dagozkion bide-seinaleak. 1522an, Inazio Deunak, zaldun zela, egin zuen ibilbidea osatzen du. Loiolako santutegitik abiatu, tartean Montserratako monasteriotik pasa eta Manresako Inazio Deunaren leizean amaitzen da.

Berehala ikusiko ditugu Carravalsecako aintzirako urak, eta honen izena erakusten duen

egurrezko argibide-taula. Aintziraren azken muturrera heltzean, balizatutako pista zabala utzi eta uraren ertzerantz zuzentzen den bidexkatik jaitziko gara. Mahastiaren eta uraren artetik aurrera egin eta, metro batzuk ibili eta gero, berriro eskuinera joko dugu pista zabala bilatuz. Norabidez aldatu eta berehala ikusiko dugu Muscoko aintzira. Besteak ez bezala, hau beti lehor dago, bertako lurrak laborantzarako erabili zituzten eta.

Muscoko aintzira atzean utzita, berehala helduko gara Carralogroñokora. Irudi ederra osatzen dute aintzirak eta bere gainean gailentzen den Guardiako herri hesituak. Eta honen atzean, Toloño harresi naturala. Ain-



CARRALOGROÑOKO AINTZIRA.

tzira inguratu, berriro errepidera atera eta bertatik Guardia aldera joko dugu. Kilometro erdi pasatxo bertatik ibili eta gero, urbanizazio baten ondora heltzean, errepidea utzi eta azken aintzirara zuzentzen den bidetik egingo dugu aurrera. Aintziraren ertzerantz heltzean, berdin izango da aukeratuko dugun norabidea, bidea zirkularra baita. Eskuin aldetik abiatuz gero, metro batzuk aurrerago, eskuinetik igotzen den xenda landu batek behatokira eramango gaitu eta, bertatik, Prao de la Paúleko ikuspegi osoa edukiko dugu.

Bidera itzuli eta bide zabalean zehar jarraituko dugu hegaztiak behatzeko etxetxoarekin topo egin arte. Migrazio garaian, urmael edo aintzira hauek hegaztien atsedentzeko bihurtzen dira. Beraz, garai egokia aukeratuz gero, hegazti mota desberdinak behatzeko leku aproposa. Aintzirari itzuli osoa eman ondoren, abiapuntura itzuliko gara.



**NOLA HELDU:** Gasteiztik abiatuz gero, Trebiñu, Urizaharra eta Herrera mendatetik helduko gara. Iruñetik, berriz, A-12tik Logroñora eta gero N-232atik Guardiara.



**ABIAPUNTUA:** Guardiako hirigunea.



**KARTOGRAFIA:** Toloño. Cuadernos Pirenaicos. Sua Edizioak.



ARABA

## MATXINBRAO BIDEA

### Artea eta natura uztartuz

02

IRAUPENA:  
1 h 50 min

LUZERA:  
5,8 km

ZAILTASUNA:  
ERRAZA

DESNIBELA:  
174 m

Matxinbrao pasealekua Arabako Errioxako Bastidako lurretan hedatzen da. Izena, garrantzi gutxi duen kota batetik dator, La Mota izeneko gainetik gertu. Berez, matxinbrao hitza arotzeriarekin edo eraikuntzarekin lotutako hitza litzateke, baina ez, ez du horiekin inolako loturarik eta bai, Toloñoko mendietatik Bastidako hiribildu eta bere soroetaraino ura garraiatzeko eraiki zuten azpiegitura hidrologiko zaharrarekin.

Herriko plazatik abiatu eta berehala, Andre Mariaren Jasokundearen elizaren ondortik hasiko gara igotzen, kale artean. Motako dolare zaharraren ondortik igaro eta sigi-sagan doan bidetik Kristoren elizaren ondora helduko gara. Leku horretan, eskuinetik marrazten den bidexkatik aurrera egin eta, ehunen bat metro bertatik ibili eta gero, ezkerretik bidezidorra hartuko dugu. Aldapa motz eta piko batek La Mota izeneko gain edo muinora eramango gaitu. Bertatik, Errioxako mahastien eta Bastida herriaren ikuspegi zabalaz goatzeko aukera paregabea izango dugu. Erpin geodesikoaz gain, zeruko planisferio birakari bat aurkituko dugu, konstelazio ikusgarriak gaueko zeruan kokatzen laguntzen duelarik.

Gain hau San Ginés atsedentlekuarekin lotzen duen bi kilometroko ibilbidean zehar, Pedro




SAN ANDRES AKUEDUKTUA.

Pablo bastidar artistak apaindutako artelan berezi eta ikusgarriak bidaide azalduko zaizkigu, baita akueduktu zaharraren arrastoak ere. Irudi

bereziak dira, ingurune paregabe batean txertaturik, eta dena Toloño mendiaren magalean kokaturik. Pedro Pablo artistak egurra, harria, burdina eta beste elementu batzuk erabiltzen ditu bere artelanak ibilbidearen eta naturaren edozein txoko edota bazterretan agertzen direlarik. Helduentzat ez ezik, oso ibilbide aproposa da etxeko txikiekin burutzeko, natura eta artea nola uztartu daitezkeen erakutsi eta, bide batez, jolasteko.

Badira ibilbidearen lehen zati honetan artista-ren artelaneekin zerikusik ez duen beste eraikuntza batzuk, akueduktu eta ubideen arrastoak, hain zuzen ere. Lehen esan dugun bezala, Toloño mendietatik jaisten ziren urak bideratzeko, inguru honetan azpiegitura hidrauliko bat altxatu zuten, hots, mendilerroko iturburuetatik, grabitatearen bidez ura herrira eta soroetara garraiatzeko ubideak. Horretarako bi eraikin

- **NOLA HELDU:** Gasteiztik A-1 eta N-124 errepideetatik helduko gara Bastidara.
- **ABIAPUNTUA:** Bastidako herriko plaza.
- **KARTOGRAFIA:** Toloño. Cuadernos Pirenaicos. Sua Edizioak.



ARTELANA.

tipo altxatu zituzten. Batetik akueduktuak, uraren jarioa lurraren mailatik gora igarotzen zenerako, sakanak eta ibarbideak salbatzeko alegia, eta bestetik, ubideak, lurraren malda aldekoa izanez gero, honen gainean kanal bat eraikitzen zuten edo, zenbait lekutan, arrokan bertan zulatu egiten zuten.

Artelanak, akueduktuak eta ubideak atzean utzi eta San Ginés atsedenekura helduko gara, Toloñora igotzeko ohiko abiapuntura. Hona heltzean, aukera erakargarriak izango ditugu Bastidara itzultzeko. Lehenengoa, etorritako bidetik atzera egitea; bestela, errepidetik jaitziko gara San Andreseko akueduktuaren arrasto

bikainak ikusi ahal izateko. Herrigunera iristean, ibilaldi honen hasieran aipatutako monumentuez gain (elizak eta dolarea), badago bisitatzea merezi duten beste zenbait elementu: XIII. mendeko barroko berantiarreko estiloa duen udal-etxea eta Larrazuriaren Arkua, antzinako harresiaren atean kokatua.

# ARGIÑETAKO NEKROPOLIA

## Erdi Aroko hilerria

16

IRAUPENA:  
2 h 45 minLUZERA:  
12 kmZAILTASUNA:  
ERRAZADESNIBELA:  
349 m

Elorrioko hirigunea osatzen duten eraikin historikoez gain, udalerriko zenbait auzo zeharkatzean, ondare historiko garrantzitsua bertatik bertara ezagutuko dugu: jauregiak, elizak, gurutzeak, errota, baselizak, baserriak eta nekropoliak, besteak beste.

Elorrioren gaur egun XVI. mendeko bederatzi gurutze daude eta horietako bat abiapuntutzat hartuko dugu ibilaldi honi hasiera emateko, San Juango gurutzea han zuzen ere. Honen aurrean XVII. mendekoa den Urkizu edo Tola jau-regia ikusiko dugu, Urkizutarrenak ziren lurretan zeuden etxeak eraitsi eta gero, 1677. urtean eraiki zena. Tola de Gaytán familiak 1918an jau-regia

ALDAPEKO ERROTA.



erosi eta izena eman zion. Herriko kirol gunera zuzentzen den bidetik, San Bizentekoa baserri bikaina atzean utzi eta errepidera aterako gara, San Anton baselizaren ondora. Aurrez aurre dugun zelaitxo zeharkatzen duen xenda batetik etxalde batera helduko gara. Gallastegi zerrategiaren ondora iristean, gertu Iguriako gurutzea ikusiko dugu, Kanpazarko gainera eramaten duen saihesbidearekin bat egiten duen lotunetik hurbil.

Zerrategiaren ondotik Gazeta auzora zuzentzen den errepidetik joko dugu eta, bidegurutzera heldu aurretik, Gazetako zubitxo eta Bekoerrota izandakoaren aurriak ikusi ahal izango ditugu. Orain arteko bide laua utzi eta ezkerretik Gazetaraino igotzen den bidetik gorantz egingo dugu. Durangaldeko gailurren panoramika osoa ageriko zaigu lehen aldiz eta bidelagun izango dugu ia ibilbide osoan zehar. Auzoa atzean utzi, Gerbillao baserriaren ondotik -Elorrioko zaharrenetakoa- pasa eta pinudi batean



ARGIÑETAKO NEKROPOLIA.

murgilduko gara maldan behera Aldape auzora jaisteko. Bertara iristean, errota, estilo herrikoi-ko San Jurgi baseliza, ikuztegia eta iturria ikusiko ditugu. Aldapebeitia baserri dotorearen ondotik igaro eta maldan gora jarriko gara.

Egurrezko maila batzuek aldapa motz baina piko bat gaintzen lagunduko digute San Joan baselizaren ondora iristeko. Gertuko errepidea gurutzatu eta gero, basoan sartzen den xenda eroso batek Casto de Zavala arkitektoak 1889an eraiki zuen Uratsara eramango gaitu, 1826 urteko Elorrioko Bainuetxe Zaharra elikatzen zuen ur sufretsuen iturrira hain zuzen ere. Elorrioko harana ur sufretsu iturburu gehien dituztenetakoa da eta, arrazoi hori dela eta, inguru honetan osasun-establezimendu ugari eraiki ziren. Gertu dugu Zenita auzoa eta bertara joko dugu segidan. Zubi gisa jarritako lauza batek erreka zeharkatzen lagunduko digu. Etxe eta baserri

ederrak ezker-eskuin, Elgetarantz zuzentzen den errepidera aterako gara eta, bertatik, metro batzuk bete ostean, Argiñetako nekropolirako bidea hartuko dugu.

San Adrian baselizaren ondoan dago nekropolia. Sarkofago bikoitzeko hogeita bat hilobiz eta bost hilarritz osatuta dago. Hilobiek atal bi dituzte: pieza bakarrek kutxa antropomorfoa eta itxura triangeluarreko estalkia. Latinezko inskripzioak ere badira bi hilobietan. Sarkofago hauek inguruko auzoetako (Mendraka, Miota eta Berrio) nekropolietan erabiltzeko egin ziren Goi Erdi Aroan, baina XIX. mendean gaur egun dauden tokian bildu zituzten. Goi Erdi Aroan eraikitako sarkofagoen kopurua aintzat hartuz gero, esan daiteke garai hartako Bizkaiko hiletamonumenturik handiena dela. Hilarriak baselizaren barruko aldean dauden hamahiru pieza dira. Kanpo aldean, interesgarrien diren bost



SAN JURGI BASELIZA.




**NOLA HELDU:** Elorriora Kanpanzar mendatetik edo Durangotik helduko gara erosoan.



**ABIAPUNTUA:** Urkizu Tola jauregia.



**KARTOGRAFIA:** Anboto-Udalatz. Mapas Pirenaicos 1:25.000 Sua Edizioak.



hilarrien kopia daude ikusgai. Hauetako lau diskoideak dira eta bat, triangeluarra. Hilobiak baino zaharragoak dira, Kristo aurreko garaikoak hain zuzen ere.

Baseliza eta nekropolia atzean utzi eta Mendraka auzorantz joko dugu. Mahastien ondotik pasa eta erraz igoko gara auzoaren goiko aldean dagoen Santo Tomas baselizaren eta nekropoliaren ondora. Bide lautik hasieran, eta gero maldan behera, Lekeriketa auzora jaitziko gara. Errepideak Kurutzondoko gurutzareen ondoraino eramango gaitu eta bertatik, Elorrioko herrigunean murgilduko gara, eta abiapuntura itzuli aurretik, bere kasko historikoa zeharkatzean makina bat eraikin ikusteko parada izango dugu: Kanpoaldeko atea, Urkizu dorretxea, Sortzez Garbiaren basilika, Otsa Goikoa errota, Kurutziaga eta San Juango gurutzeak, Santa Ana komentua eta herriko ondarea aberasten duten makina bat jauregi eta etxe eder.

## BIZKAIA

# BOLUNBURUKO KASTROA

## Burdin Aroko herri gotortua

17

IRAUPENA:  
2h

LUZERA:  
6,7 km

ZAILTASUNA:  
ERRAZA

DESNIBELA:  
236 m

Ibilbide erraz honek Kadagua ibaiak zeharkatzen duen Salcedo haranera garamatza. Han, muino txiki batean, Burdin Aroko Bolunburuko herri gotortua bisita eta monumentu-multzoa osatzen duten burdinola, dorretxea eta Santa Ana ermita bisitatuko ditugu.

Zallako Ibarra auzoko Longar poligonoan Zekingo diogu ibilbideari, KZgunearen ondoan. Gertu dago Bi-R6 Zalla-Balmaseda bidegorria. Bada, malda txiki batetik igo eta bidegorritik aurrera egingo dugu, eskuinalderantz. Kadagua ibaiaren ondora iristean, Donejakue bidearen seinaleak ikusiko ditugu. Bide honi Ahaztutako Bidea deitzen diote, Bilbon hasi eta mendebalderantz abiatzen da Alonsotegi, Gueñes, Zalla eta Balmasedan zehar. Balmaseda gainditu ostean, Bizkaia atzean laga eta Burgosen murgiltzen da Menako haranean.

Laster, bidegorria utzi eta ezkerretik doan xendan barrena abiatuko gara. Xenda bitan banatzen den lekuan, ezkerrekoa aukeratuko dugu, Kukubidexka izena duena hain zuzen ere. Begiratokira doana bueltakoan ezagutuko dugu. Errepidearen gainetik pasatu eta gero, xenda pista zabala bihurtu eta aldapan gora

jarraituko dugu. Errekaren paraleloan marrazten den bide zabalaren malda pikotik altuera irabazten jarraituko dugu. Eskuinetik ateratzen den lehen pista utzita, beste bidegurutze batera helduko gara eta, bertan, harri batean idatzitako "kastroat" izenak erakutsiko digu aukeratu beharreko bidea. Bide zabalak xenda estu bati txanda eman eta bertatik igoko gara Bolunburuko kastroaren sarreraraino.

Juan Luis Diez basozainak aurkitu zuen kastroat, ustekabean. 1998an paraje hauetan sute bat piztu eta harresi baten arrastoak aurkitu zituen. 2002tik aurrera, hainbat zundaketa eta indusketa arkeologikoak egin izan dira esparruan. Kastroat txiki xamarra da, lau mila metro koadro ingurukoa. Bigarren Burdin Aroko herrixka gotortua da Bolunburukoa, K.a. IV. mendetik eta K.o. I. mendera arte landa-komunitate txiki bat bizi izan zen bertan modu egonkorrean. Harresitutako esparru bat eta kanpoko lubaki bat



EZPELETAKO BIPERRAK.

batera gaztainondoak tartekatzen dira, eta pare bat ataka eta errekastoren bat edo beste gainditu ondoren, maldan gora egingo dugu, Zapatandegiko ingurura iritsi arte. Baso pistatik altuera galtzen hasiko gara, hurritz eta gorosti ugariko ingurune hezean. Gertu ikusiko dugu Ezpeleta herria, eta asfaltozko errepidera iristean, azkar helduko gara erromatarren garaiko zubi txiki baten ondora. Abiapuntura iristeko, herrian sartu, eta karriketan ibiliko gara, etxe ederren artean, merkatu plazara ailegatu arte.

Ibilaldia amaitzean, kale artean ibili. Gazte-luan Turismo Bulegoa, Herriko Etxea, liburutegia eta Ezpeletako piperraren langintzaren erakusketa dago. Bisita merezi du. Eta gaztelua ezagutu ondoren, XVII. mendearen hasieran eraiki zuten San Esteban elizara joatea ere merezi du, batik bat hilarrien bilduma, baita lau svastika dituen hilobi-harria ere. Iparraldeko barruko herri askok bezala, Ezpeletak xarma berezia du; inguruko paisaia lasaia herrikoarekin bat egiten du, eta bertaraten denari egun-pasa atsegina eskaini.

# MIARRITZEKO LAKUAK

## Natura eta hiria batera

34

IRAUPENA:  
2 h 15 min

LUZERA:  
8,8 km

ZAILTASUNA:  
ERRAZA

DESNIBELA:  
103 m

Miarritzeko Lakuen ibilbidea izeneko proiektuak zortzi eta bost kilometroko hiru ibilaldi eskaintzen ditu, guztiz birgaitutako ibilbide batean barrena. Lapurdiko herri horretako zenbait leku ezagutzeko aukera izango dugu, gutariko askorentzat oraindik ezezagunak diren ingurune bitxiak. Zirkuiturik handienak zortzi kilometro ditu. Milady hondartzaz gain, Marion eta Mouriscot aintzirak inguratzen ditu, zati urbanoak eta naturalak uztartuz.

Marion lakuaren ondoan aparkaleku txiki bat dago. Bertatik abiatuko gara. Lakua- ren ertzera jaistean, panoramika oso bat zabalduko zaigu, eta uretan, hainbat ahate mota ikusi ahal izango ditugu. Aintziratik pixkanaka alden- duz joango gara parketik atera arte. Larreguy eta Eugene Raulet kaleetan barna, Mouriscot lakura jaisten den Grabielle Dorzat kaletik abiatuko gara.

Mouriscot aintzira 110 hektareako natura- gune baten parte bat da, eta Miarritze eta Bidarte artean dago. Guneak hainbat paisaia desberdin eskaintzen ditu: ingurune irekiak, ur berdeetako lakua, sastraka trinkoa, hezeguneak eta inguru- ne zeharkaezinak. Kontraste harrigarria egiten du ingurune urbanizatuarekin. Malda malkar- tsuko aintzira da, eta haren magal oihantsu eta ilunek –pinuak, haritzak eta pagoak daude– harresi modukoak osatzen dituzte. Lakuaren

eta inguruaren ezaugarri nagusia hezegune- mosaikoa da, interes biologiko eta paisajistiko handikoa.

Aintzira atzean utzi, eta hondartza aldera zuzenduko gara. Gabriel Dorzat kaletik segi- tu, eta Milady kaletik Ozeanoaren Hirira hel- duko gara. Eraikin horretan, modu dibertigarri, esperimental eta zoragarrian, ozeanoa ezagu- tzeko aukera izango dute bisitariek: biodiber- tsitatea, kirol jarduerak, espezie eta biotopoen aurkikuntza, poloen aurkikuntza ludikoa, etab. Aurrera jarraituko dugu, eta, berehala, Milady hondartzaren ondora iritsiko gara. Eguraldia lagun, aukera paregabea bainu goxo bat har- tzeko. Hondartza horren izena, Lady Mary Caro- line, eskoziar errege-erreginen ondorengoari zor zaio, hondartzaren aurrean bere jauregia eraiki zuen eta.



MARION LAKUA.

Hondartzari bizkar emanda eta bide seinaleei kasu eginez, xenda ikusgaitz bat bilatuko dugu, ur-araztegia eta etxeen artean igaroz. Pierre de Cheigné kaletik gorantz egingo dugu segidan,

baina, gora heldu aurretik, eskuinetik ateratzen den xenda bat –Giroueteko bidea– hartuko dugu. Basoan zehar doa xenda eta Salon kalean du amaiera. Ingurune urbanora aterako

gara berriro, Marion lakura heldu aurretik Jean Bouton eta Jaizkibel kaleak zeharkatuko baititugu. Lakuaren ondoraino jaitsiko gara, eta, ertze-tik ibiliz, abiapuntura helduko gara.

Miarritzeko hirigunetik gertuko aintzira hori lorategi publikoa da. Erdian, putzu artesiaren batek elikatzen duen bost hektareako laku natural bat dago. Lorategiak hamazazpi hektareako azalera

# NAFARROA

## 43 OLLARANGO ITZULIA

(5 h / 20,3 km / 425 m)

## 44 ELIZAGORRIAKO LURRETAN

(2 h 30 min / 8,7 km / 243 m)

## 45 LAZKUAKO BEGIRATOKIA

(1 h 20 min / 3,6 km / 220 m)

## 46 PORTUPEKOLEZE ETA LEZAUNDI

(3 h 20 min / 12,4 km / 441 m)

## 47 PITILLASKO AINTZIRA

(2 h 45 min / 11 km / 46 m)

## 48 ORBAIBARKO ERMITAK

(3 h 50 min / 11,8 km / 341 m)

## 49 ARTIKUTZAKO BASOAK

(5 h 15 min / 20,2 km / 765 m)

## 50 GARESKO GOTORLEKUAK

(2 h 40 min / 8,9 km / 295 m)

## 51 BARDEA ZURIA

(3 h 20 min / 12,7 km / 198 m)

## 52 IRUNBERRIKO ARROILA

(2 h / 6,4 km / 298 m)

## 53 LARRAUNGO LURRETAN

(3 h / 11 km / 259 m)

## 54 AMAIURKO GAZTELUA

(3 h 30 min / 15 km / 421 m)

## 55 EUSKAL HERRIKO ERDIGUNE GEOGRAFIKOA

(3 h 50 min / 13,9 km / 490 m)

## 56 INFERNUKO ERROTA

(3 h 30 min / 14,2 km / 454 m)



**MORTUAK,  
GOI ORDEKAK,  
PAGADIAK,  
HAITZULOAK,  
BEGIRATOKIAK,  
IBAIK ETA  
LEKU EZIN  
SINBOLIKOAGOAK.**



GESALAKO BIDEAN



LABIRINTOA.

Hemendik gure txangoaren abiapuntura itzultzeko, hasieran erabili dugun altxonbi-dea hartuko dugu. Norbaitek El Rallón tontorrera igo nahi izanez gero (joan-etorria ordu erdi bat gegiago), lepoa gainditu eta sigi-sagan igotzen den bidetik jo beharko du. Amildegia-  
ren ertzer a hurbilduz gero, betiko grabaturik geratuko zaion argazkia ikusiko du. Bide bere-  
tik edota hegoalderantz jaisten den xendatik itzul daiteke.

Errege Bardean, habiak egiten diren garaian, sartzeko murrizketak daude zenbait eremutan, hegaztiak babesteko. Gune horiek, hala nola La Ralla, El Rallón, Piskerra, La Gorra eta Balsa de Zapata, aldi baterako itxita daude jendearentzat, ugalketa-aldian hegaztien lasaitasuna bermatzeko. Debekua otsailaren hasieran hasi ohi da, eta seinaleztapen bidez adierazten da Hegaztien Babes Bereziko Eremuko (HBBE) eremu kaltebe-  
retarako sarbideetan.

NAFARROA GARAIA

IRUNBERRIKO ARROILA  
El Irati trenaren bidean

52

IRAUPENA:  
2h

LUZERA:  
6,4 km

ZAILTASUNA:  
ERRAZA

DESNIBELA:  
298 m

El Irati trenak, 1911ko apirilaren 23an egin zuen bere lehen bidaia. Penintsulako lehen tren elektrikoa izan zen eta Europako lehenengotakoa. 1906an Domingo Elizondok El Irati enpresa sortu zuen Iratiko basoetako egurra ustiatzeko asmoz, alegia, Agoitzerraino almadien bidez jaitsi eta herri horretatik tren elektriko baten bidez egurra Iruñera eramateko. Hasieran Agoitzetik Iruñera (30 kilometro) besterik ez, baina berehala Irunberrira luzatu zuten, eta gero Zangozaraino. Ia lau milioi eta erdi pezetako aurrekontua izan zuen trenbide horrek, eta 58 kilometroko luzera.

LEIREKO MENDIZERRA IRUNBERRIKO ZEREAL LURREZ INGURATURIK.



**P**roiektua Carlos Laffitte donostiar injine-ruak egin zuen. Trena Irunberriko arroila zeharkatzen zuen eta horretarako bi tunel zulu-  
tu behar izan zituzten. 50.000 tonako merkan-  
tziak gain, 250.000 bidaiari garraiatzen zituen  
urtero. Txartelak 8,25 pezeta kostatzen zituen  
eta ibilbide osoa egiteko bi ordu eta laurden  
behar zituen. Nafarroako industrializazio pro-  
zesuan garrantzi handia izan zuen. Errepidee-  
tako garraioen konpetentziak El Irati trenaren  
amaiera ekarri zuen 1955eko abenduaren 31n.

Ibilgailua uzteko ordaindu behar den aparka-  
lekuaren ondoan jarrita, asfaltatuko bidean bar-  
na emango ditugu lehen urratsak. Berehala, itu-  
rridun atsedeneku txiki baten ondoan, ezkerre-  
ra ateratzen den xendatik gorantz egingo dugu,  
SL NA-113ari dagozkion bide-seinale zuri-ber-




**NOLA HELDU:** Iruñetik AP-15 autopistatik eta A-21  
autobidetik Irunberrira helduko gara. Herriko sarbidean  
bertan arroilarako bide-seinaleak ikusiko ditugu.



**ABIAPUNTUA:** Irunberriko arroilako aparkalekua.



**KARTOGRAFIA:** Leire. Mapas Pirenaicos. Sua Edizioak.



deak jarraituz. Gure ezkerre zereal-lurrak dira  
nagusi, baina berehala ezpel, abaritz eta beste  
zenbait espezieen artean marrazten den xen-  
dan murgildu eta poliki-poliki altuera irabazten  
hasiko gara. Zenbait tartetan bidea estutu arren,  
ez dugu Leireko mendizerraren ikuspegia gal-  
duko. Metro batzuk gorago pista zabal batekin  
egingo dugu topo.

Leku honetan xenda desagertu egiten da.  
Beraz, harrizko pistan barna bete beharko dugu  
hurrengo tarte. Denbora gutxi beharko dugu  
Alzuetako bordaren ondora iristeko. Behin han,  
gure eskuinera ateratzen den bidea utziz, aurre-  
ra segituko dugu marka zuri-berdeek erakusten  
diguten bidetik. Metro batzuk aurrerago egu-  
rrezko bide-seinale batek eskuineko lurrezko pis-  
tatik jaistera gonbidatuko gaitu. Berrir harrizko  
pista batera aterako gara. Hura segituko dugu  
beste seinale batekin topo egin arte. Hor ikus-  
pegia aldatu egiten da, bidelagun izan dugun  
Leireko mendizerra desagertu eta, haren orde-  
z, Irati ibaiak bustitzen dituen lurak azalduko zaiz-  
kigu. Puntu honetan ibai aldera jaisten den xen-  
dari helduko diogu eta konturatu orduko El Irati  
tren zaharren bidean izango gara.

Irati ibaiaren paraleloan, tren zaharrak arroi-  
lan sartzeko gurutzatzen zuen lehen tunela-  
ren ondora iritsiko gara, baina beste aldera pasa  
aurretik Deaburuaren zubira gerturatuko gara.  
Horretarako ezkerretik ateratzen den bidexka  
hartuko dugu eta kontu handiz ibiliz zubiaren  
ondora helduko gara. Bidea oso estua baita eta  
komeni da erne ibiltzea. Tunelera itzuli eta zubi  
honen jatorriari buruzko historia panel batean  
irakurri ondoren, 206 metroko luzera duen tune-  
lean sartuko gara. Argitara ateratzean, arroila-  
ren barru aldean izango gara eta hemen ikuspegia  
erabat aldatuko da. Harresi naturalez inguratu-  
rik, eremu basatian murgilduko gara.



IRUNBERRIKO ARROILA.

Nafar Gobernuak natur erreserba izendatu  
zuen 1987an. Orotara, 40 hektareako azalera du  
eta bertako pareta bertikaletan sai arren kolonia  
eta beste zenbait hegaztiren bizilekuak ikusteko  
aukera izango dugu. Arroila kilometro bateko  
luzera du, gutxi gorabehera, eta Irati ibaiak erdi-  
tik zeharkatzen du. Merezi du bidearen zati hau  
lasai egitea eta, ahal izanez gero, prismatikoak

aldean eraman, bertako biztanleak gertuago-  
tik ikusteko. Inguruaz gozatu ostean, ibaiaren  
paraleloan, antzinako trenbidetik, aurrera egin-  
go dugu argiztatu gabeko bigarren tunelaren  
ondora iristeko. Honek 167 metroko luzera du  
eta behin zeharkatuta atsedenekuan izango  
gara. Zintzurra freskatu eta aparkalekuraino fal-  
ta diren metroak beteko ditugu.